

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua:

2009/17/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2009ko apirilaren 23koa, 2002/59/EE Zuzentaraua aldatzekoa, itsasoko trafikoaren jarraipenerako eta informaziorako Erkidegoko sistema bat ezartzeari buruzkoa

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DIRECTIVA 2009/17/CE, DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2009 , por la que se modifica la Directiva 2002/59/CE relativa al establecimiento de un sistema comunitario de seguimiento y de información sobre el tráfico marítimo*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 131 de 28/05/2009)

2009/17/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2009ko apirilaren 23koa,

2002/59/EE Zuzentaraua aldatzekoa, itsasoko trafikoaren jarraipenerako eta informaziorako Erkidegoko sistema bat ezartzeari buruzkoa

(Testu egokia EEEren ondorioetarako)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNAREN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatu eta, bereziki, horren 80.
artikuluaren 2. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute

(¹)

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute (²),

Tratatuaren 251. artikuluan(³) ezarritako prozedurari jarraiki,
Adiskidetzeko Komiteak 2009ko otsailaren 3an onarturiko testu
bateratua aztertuta,

Honako hau kontuan hartuta:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/59/EE
zuzentaraua onartu ondoren(⁴), Europar Batasunak
itsasoan giza bizitzaren segurtasuna mehatxatzen duten
egoerak prebenitzeko eta itsasoa babesteko tresna
gehigarriak eskuratu ditu.

(2) Zuzentarau hau 2002/59/EE zuzentaraua aldatzekoa denez,
barneratzen diren betebeharrak ez dira aplikagarriak
izango kostarik eta itsas porturik gabeko estatu kideentzat.

Horrenbestez, Austria, Txekiar Errepublika, Hungaria,
Luxenburgo eta Eslovakian aplikagarri izango diren
betebeharrak estatu kide horien itsasontzi
banderadunei dagozkionak izango dira; hori, itsasoko
zerbitzuen eta trafikoa kudeatzeko beste moduetako
zerbitzuen (bereziki, ibaiei buruzko informazioa ematen
duten zerbitzuen) arteko jarraipena bermatzeko xedez,
estatu kideek lankidetzan aritzeko duten betebeharraren
kalterik gabe.

(3) Zuzentarau horren arabera, kostadun estatu kideek beren
eskumeneko zonaldeetan itsasoko trafikoaren jarraipena
egitea helburu duten misioetan jasotzen duten informazioa
trukatzeko aukera izan behar dute. Itsasoko informazio-
truckerako erkidegoko «SafeSeaNet» sistema, estatu kideen
akordioari esker Batzordeak sortuak, bere baitan ditu, alde
batetik, datuak trukatzeko sare bat, eta, beste alde batetik,
itsasontziei eta haien kargei buruz (iritsiera-aurreabisuak eta
jakinarazpenak) eskuragarri dauden datu nagusien bertsio
normalizatua. Horrela, iturria lokalizatzeaz gain,
eskumeneko agintaritzari Europako uretan nabigatzen duten
itsasontziei, haien mugimendu eta haien karga arriskutsu
edo kutsagarri buruzko informazio zehatza eta eguneratua
helaraztea ahalbidetzen da; era berean, itsasoan gertatzen
diren gorabeherekin lotutako informazioa helaraztea
ahalbidetzen da.

(4) Testuinguru horretan, jasotako informazioari etekin osoa
ateratzea bermatze aldera, ezinbestekoa da zuzentarau
honetan aipatzen diren datuak jaso eta trukatzeko
beharrezkoak diren azpiegiturak, administrazio nazionalak
ezarritakoak, SafeSeaNet sisteman barneraturik geratzea.

(5) 2002/59/EE Zuzentaruaren arabera jakinarazi eta
trukaturako datuen artean, bereziki garrantzitsuak dira
itsasoz garraiatzen diren merkantzia arriskutsu edo
kutsagarrien ezaugarri zehatzei buruzkoak. Ildo horretatik,
berriki itsasoan izandako istripuak aintzat hartuz,
ezinbestekoa da kostaldeko agintaritzei itsasoz garraiatutako
hidrokarburoen ezaugarri buruzko informaziorako
sarbidea ahalbidetzea, izan ere, hori funtsezko elementua da
kontrol-teknika egokienak aukeratzeko eta, era berean,
garraiatzen diren ekoizkinak hobeto ezagutzen dituzten
operadoreekin harreman zuzena izatea eskaintzeko.

¹ L 318 EO, 2006/12/23koa, 195. or.

² L 229 EO, 2006/09/22koa, 38. or.

³ Europako Parlamentuaren irizpena, 2007ko apirilaren 25ekoa (L 74 E EO,
2008/03/20koa, 533. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2008ko ekainaren
6koa (L C184 E EO, 2008/07/22koa, 1. or.) eta Europako Parlamentuaren
Jarrera, 2008ko irailaren 24koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu
gabea). Kontseiluaren 2009ko otsailaren 26ko Erabakia eta Europako
Parlamentuaren legegintzako ebazpena, 2009ko martxoaren 11koa
(Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea).

⁴ L 208 EO, 2002/08/05ekoa, 10. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- (6) 1974ko azaroaren lehen sinatutako itsasoan giza bizitza segurtatzeko nazioarteko hitzarmenean itsasontziak automatikoki identifikatzeko sistemak aipatzen dira (AIS - Automatic Identification System). Sistema horiei esker, itsasontziak kontrolatzeko aukerak hobetzeaz gain, batez ere, gertuko nabigazioan itsasontzi horiei segurtasun gehiago ematea ahalbidetzen da. Horregatik barneratu dira 2002/59/EE Zuzentarauko xedapenetan. Arrantza-ontzi asko izan ohi dira abordatzeetan, merkataritza-ontziek ikusi ez dituzten arrantza-ontziak nahiz inguruan nabigatzen ari ziren merkataritza-ontziak ikusi ez dituzten arrantza-ontziak. Hori aintzat hartuz gero, desiragarria da neurri hori zabaltzea, 15 metrotik gorako luzera duten arrantza-ontziak barneratze aldera. Arrantzarako Europako Funtzaren testuinguruan, on litzateke arrantza-ontzien barnean segurtasun-ekipamenduak (AIS sistema kasu) instalatzeko laguntzak ematea. Nazioarteko Itsas Erakundeak (NIE) aitortu duenez, Interneten edo bestelako hedabide batzuetan, merkataritza asmoekin, itsasontziek helarazitako AIS datuak argitaratzea kaltegarria izan daiteke itsasontzien eta portuko instalazioen segurtasunerako; hala, NIEko kide diren Gobernuen eskatu die, legedi nazionalen xedatutakoa gorabehera, Interneten edo bestelako hedabide batzuetan argitaratzeko asmoz, beste batzuentzat AIS datuak eskuragarri jartzen dituztenei kentzeko horretarako asmoa. Halaber, Zuzentaru honi jarraiki, Estatu Kideei igorritako informazioaren konfidentzialtasuna bermatu egin behar da eta Estatu Kideek bertan xedatutakoa betez erabili behar dute informazio hori.
- (7) AIS sistema barneratzeko betebeharrak berekin darama AIS hori uneoro lanean edukitzea, nazioarteko arau edo irizpideek nabigazioari buruzko informazioa babestea ezartzen dutenean izan ezik.
- (8) Sistema hori eskatzen duen estatu kide orok beste estatu kide batek itsasontzi jakin bati eta hartan garraiatzen den karga arriskutsu edo kutsagarriari buruz duen informazioa jasotzeko baimena izan behar du. Informazio hori eskuragarri egon behar da SafeSeaNet erabiliz eta soilik itsas segurtasunarekin, itsas babesarekin eta itsas ingurunearen babesarekin lotutako arrazoiengatik eskatu beharko litzateke soilik. Hori dela eta, ezinbestekoa da Batzordeak sarearen eta informazioaren segurtasunean izan daitezkeen balizko arazoak aztertzea.
- (9) 2002/59/EE Zuzentaruaren ezartzen denez, estatu kideek neurri zehatzak hartu behar dituzte mugimendu arriskutsuak egiten dituzten edo egoera arriskutsuan diren itsasontziei dagokienez. Ildo horretatik, komenigarria dirudi itsasontzi horien zerrendan aseguru-estaldurarik edo finantza-berme egokirik ez duten itsasontziak barneratzea; edo, portuetako langile edo agintaritzen ohartarazpenen arabera, nabigazioaren segurtasuna mehatxa dezaketen edo ingurumena kalte dezaketen irregulartasun argiak dituztenak.
- (10) 2002/59/EE Zuzentaruari jarraiki, bereziki kontrakoak diren baldintza klimatikoek dagokienez, beharrezkoa dirudi izotza sortzeak nabigazioan eragin dezakeen arriskua aintzat hartzea. Horrela, meteorologiako informazio-zerbitzu kualifikatu batek izotzaren egoerari buruz emandako aurreikuspenetan oinarrituz, estatu kide batek izendatutako eskumeneko agintaritza batek nabigazioko baldintzek giza bizitzaren segurtasuna arriskuan jartzen dutela edo kutsadura izateko arrisku larria dagoela irizten duenean, agintaritza horrek bere eskumeneko zonan nabigatzen duten edota zonalde horretan kokatutako portu edo portuetatik sartu-irtena egiteko asmoa duten itsasontzietako kapitainei ohartarazi beharko die hori. Ezinbestekoa da agintaritza horrek itsasoan giza bizitzaren segurtasuna bermatzeko eta ingurumena babesteko neurri egokiak hartu ahal izatea. Era berean, estatu kideek eskumena izan behar dute froga bidez ziurtatzeko itsasontzi barneko dokumentazio ofizialak itsasontzi horrek dagokion zonaldeko izotzaren egoerari buruzko erresistentzia eta potentzialzko baldintzak betetzen dituela.
- (11) 2002/59/EE Zuzentaruaren aurreikusten denez, estatu kideek plan jakin batzuk eratu beharko dituzte, egoerak hala eskatzen duenean, beren portuetan edo ahalik eta baldintza onenetan babestutako bestelako lekuren batean arriskuan diren itsasontziak hartzeko, itsasoko istripuen ondorioak murrizteko asmoz. Dena den, laguntza behar duten itsasontziak hartzeko lekuei buruzko Zuzentaruak, 2003ko abenduaren 13ko Nazioarteko Itsas Erakundearen A.949(23) Ebazpena [«NIEren A.949 (23) Ebazpena»] atxikitakoak, 2002/59/EE zuzentaruaren onartu ondoren hartu ziren eta laguntza behar duten itsasontziei buruzkoak dira, arriskuan diren itsasontziei buruzkoak baino gehiago. Hori dela eta, komeni da zuzentaru hori aldatzea. Zuzentaru honetako xedapenak betetzekoak dira beti, baina betetzekoak izango dira, halaber, erreskate-operazioetan aplikagarriak diren arauak, eta, bereziki, itsasoko bilaketa eta laguntzari buruzko nazioarteko hitzarmeneko arauak, pertsonen bizitzak arriskuan izan daitezkeen heinean.
- (12) Laguntza behar duten itsasontzien kasua, NIEren A.949 (23) Ebazpenean azaltzen den eran, barneratzeko, eskumeneko agintaritza bat edo batzuk izendatu behar dira, itsas, giza bizitzaren eta ingurumenaren segurtasuneko arriskuak ahalik eta gehien murrizteko erabakiak har ditzaten.
- (13) NIEren A.949(23) Ebazpena eta Batzordeak, Itsas Segurtasuneko Europako Agentziak («Agentzia») eta Estatu Kideek elkarren artean egindako lana oinarritzat hartuz, ezinbestekoa da laguntza behar duten itsasontziak hartzeko planetan jaso beharreko funtsezko xedapenak zehaztea; modu horretan, neurri hori era harmonizatuan eta eraginkorrean aplikatzea bermatzeko eta estatu kideei ezarritako betebeharren irismena argitzea.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- (14) NIEren A.949(23) Ebazpena oinarritzat hartu behar da estatu kideek prestatzen dituzten plan guztientzat, laguntza behar duten itsasontziek planteatzen dituzten mehatxuei erantzun eraginkorra emateko. Dena den, mehatxu horiekin zerikusia duten arriskuak ebaluatzerakoan, estatu kideek, beren baldintza bereziak kontuan izanez, beste faktore batzuk ere aintzat har ditzakete; esate baterako, ur edangarria ekoizteko edo elektrizitatea sortzeko itsasoko uraren erabilpena.
- (15) Itsas jendea langileen kategoria berezi batean sartu izan da eta, ontzi-industria globalizatua dagoenez eta jurisdikzio ugari aplika daitezkeenez, babes berezia behar dute, bereziki agintaritzaren publikoekiko harremanari dagokionez. Itsas segurtasuna handiagoa izan dadin, itsasoan lan egiten duten pertsonen istripuak izaten badituzte itsasoan, tratua ona jasoko dutelako ziurtasuna izan behar dute. Haien giza eskubideak eta haien duintasuna errespetatu behar da uneoro eta segurtasun arloko ikerketa guztiak modu justu eta arduratsuan egin behar dira. Horregatik, estatu kideek, bakoitzaren legedi nazionalaren arabera, neurri handiagoan hartu behar dituzte aintzakotzat NIEren zuzentarauetako dagozkion xedapenak, itsasoko istripuetan eskifaiari eman beharreko bidezko tratuari buruzkoak.
- (16) Itsasontzi batek laguntza behar duenean, itsasontzi hori babeserako leku batean hartzeari buruzko erabaki bat hartzeko aukera izan beharko da. Neurri horrek garrantzia berezia hartzen du naufragio bat ekar dezaketen egoeratan edo ingurumenarentzat edo nabigazioarentzat arriskua ekar dezaketen egoeratan. Kasu horietan ezinbestekoa da, bere barne-egituraren arabera, eskatutako esperientzia duen eta itsasontzi bat babeserako leku batean hartzeari buruz beharrezkoak diren erabakiak hartzeko eskumenak dituen estatu kide batek agintaritzaren batean errekurtsioa jartzeko aukera izatea. Halaber, garrantzitsua da erabakia egoerari buruz alde aurretiko ebaluazio bat egin ostean hartzea. Ebaluazio hori itsasontziak babeserako leku batean hartzeari buruzko plan aplikagarri batean jasotako informazioan oinarritu beharko da. Egokia litzateke eskumeneko agintaritzaren hori iraunkorra izatea.
- (17) Laguntza behar duten itsasontziak hartzeko planetan zehaztasunez deskribatu behar da aipatutako egoeren alertari eta kudeaketari dagozkion erabakiak hartzeko prozesua. Argi eta garbi zehaztu behar dira eskumeneko agintaritzaren erantzukizunak. Era berean, alde interesatuen artean hedabideak zehaztu egin behar dira. Prozedura aplikagarriek berehala erabaki egoki bat hartu ahal izatea bermatu behar dute, itsas peritutzaren zehatz batean eta eskumeneko agintaritzaren eskuragarri izan dezakeen informazio egokian oinarritua.
- (18) Itsasontzi bat hartzen dute portuek berehala operazio horretatik erator daitezkeen kostu eta galeren kalte-ordaina jasotzearen segurtasuna izan behar dute. Horretarako, garrantzitsua da dagozkion nazioarteko hitzarmenak aplikatzea. Estatu kideek saiatu behar dute esparru juridiko bat ezartzen, aukera emango diona egoera berezitan eta erkidegoko legedia betez, itsasontzi bat hartzearen ondorioz portu batek edo bestelako entitate batek jasan ditzakeen kostuen eta kalteen kalte-ordainei aurre egiten. Gainera, Batzordeak portu batek edo bestelako entitate batek jasan ditzakeen kalteengatik kalte-ordainari dagozkion mekanismoak aztertu behar ditu. Gero, azterketa horren arabera, politika ezberdinak aurkeztu eta ebaluatu behar ditu.
- (19) Halaber, komenigarria da estatu kideek planak taxutzen dituztenean, itsasertzean dauden babeserako balizko lekuei buruzko informazioa jasotzea; hala, itsasoan istripurik edo gorabeherarik gertatuz gero, eskumeneko agintaritzaren argiro eta berehala adieraz dezan laguntza behar duten itsasontziak hartzeko zona egokienak zein diren. Informazio horretan leku horietako ezaugarri jakin batzuen deskribaketa barneratu behar da, laguntza behar duten, istripu bat izan duten edo kutsagarriren bat isuri duten itsasontziak hartzea ahalbidetzeko ekipamendu eta instalazioen deskribaketarekin batera.
- (20) Garrantzitsua da itsasontzi bat babesleku batean hartzeko eskumena duten agintaritzaren zerrenda egoki bat argitaratzea. Era berean, garrantzitsua da alertak jaso eta emateko arduraren agintaritzaren zerrenda behar bezala kaleratzea. Halaber, lagungarria izan daiteke itsasoko laguntza operazio batean parte hartzen duten aldeek, laguntza- eta atoi-zerbitzuen konpainiak eta itsasoan egoera arriskutsuak igaro ditzaketen ondoko estatu kideetako agintaritzek barne, dagokion informazioa eskuratu ahal izatea.
- (21) Finantza-bermerik ez egoteak ez du salbuesten estatu kidea alde aurretiko ebaluazio bat egiteki eta itsasontzia babeserako leku batean onartzen duen erabakitzeke betebeharretik. Eskumeneko agintariek aukera dute egiaztatzeke ea itsasontziak aseguru-estaldura bat duen ala hura babesleku batean hartzeak dakartzen kostu eta galeren kalte-ordain egokia ahalbidetzen duen bestelako finantza-bermerik duen; hala ere, informazio hori egiaztatzeke egiten diren informazio-eskaerak ez dute salbamendu-lanak atzeratzeko arrazoi izan behar.
- (22) Itsasoko trafikoaren jarraipena egin eta hura antolatzeke neurrien funtzio espezifikoak da estatu kideek beren jurisdikziopeko uretan nabigatzen duten itsasontzien berri izatea, eta, hala, beharrezkoa denean balizko arriskuen prebentzio handiagoa zilegitzen da. Informazio-trukeari esker, jasotako informazioaren kalitatea hobetzen da, eta informazioa prozesatzen errazagoa bihurtzen da.
- (23) 2002/59/EE Zuzentarauak arautzen duena betez, estatu kideek eta Batzordeak aurrerapen handiak egin dituzte datuak bide elektronikoetatik trukatzeko gaiaren harmonizazioa lortzeko, eta, bereziki, merkantzia arriskutsu edo kutsagarrien garraioari dagozkion datuak trukatzeko. SafeSeaNet sistema 2002az geroztik garatzen da eta

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

komenigarria da sistema hori erkidegoko erreferentziazko sarea izatea. Administrazio kargak eta sektorearen eta estatu kideen kostuak murriztea izan behar du SafeSeaNet sistemaren helburua. Halaber, sistema horren helburu izan behar da, hala dagokionean, txosten eta jakinarazpenei dagozkion nazioarteko arauak uniformeki aplikatzeko aukera ematea.

- (24) Teknologia berrien arloan hainbat aurrerapen egin dira, zehazki aplikazio espazialei dagokienez, esate baterako, itsasontziak jarraitzeko baliza bidezko gailuak, irudi bidezko sistemak edo satellite bidezko nabigazio-sistema (GNSS). Aurrerapen horiei esker, gaur egun itsasoko trafikoaren zainketa itsas zabalera heda daiteke eta horrek Europako uren estaldura handiagoa bermatzen du, besteak beste, itsasontzien irispide luzeko identifikazio- eta jarraipen- sistemaren (LRIT) bidez. Tresna horiek 2002/59/EE zuzentarauaren bidez ezarritako itsasoko trafikoari buruzko jarraipenerako eta informaziorako sisteman erabat txertatzea bermatzeko, ezinbestekoa da jarduera horiek Erkidegoaren lankidetzara osoaz gauzatzea.
- (25) Kostuak aurrezteko eta AIS sistema erabiliz base finkoko estazioen bidez instalatutako itsas zonaldeetan nabigatzen duten itsasontzietan beharrezkoak ez diren ekipamenduak instalatzea saihesteko, estatu kideak eta Batzordea lankidetzan aritu behar dira LRIT bidezko informazioa transmititzeko ekipamenduak instalatzeko baldintzak ezartze aldera eta, era berean, dagozkion neurriak aurkeztu behar dituzte Nazioarteko Itsas Erakundearen.
- (26) AIS sistemako datuak eta itsasontziek igorritako LRIT datuak ez dira arriskutsuak izan behar itsas segurtasun nahiz babeserako edo ingurumenaren babeserako.
- (27) Itsas segurtasunari buruzko 2002/59/EE zuzentarauaren arabera jasotako informazioa erkidegoan era egoki eta harmonizatuan erabiltzea bermatzeko, Batzordeak, hala dagokionean, datu horiek tratatu, erabili eta estatu kideek izendatutako agintaritzetara helarazteko baldintzak bete behar ditu.
- (28) Horren harira, «Equasis» sistemaren garapenak erakutsi duenez, ezinbestekoa da interesatuak itsas segurtasunaren garrantziaz kontzientziaraztea eta, batez ere, itsas garraioko operadoreak. Batzordeak itsas segurtasunari buruzko informazio oro helarazten lagundu behar du, batez ere sistema hori baliatuz.
- (29) Itsas segurtasunerako eta itsasontziek eragindako kutsaduraren prebentziorako Komitea (COSS) ⁽¹⁾ sortzeko

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/2002 (EE) Erregelamenduan dagokion erkidegoko araudiaren barnean sortutako lantaldeetako lanak barneratzen dira, itsas segurtasunari, itsasontziek eragindako kutsaduraren prebentzioari eta itsasontzien barneko bizi- eta lanbaldintzak babesteari buruzkoak. Horrenbestez, egungo lantaldearen ordean COSS Lantaldea barneratu behar da.

- (30) Halaber, komeni da agertutako nazioarteko tresnetan egindako aldaketak aintzat hartzea.
- (31) Egokia da zuzentaru hau betetzeko premiazko neurriak onartzea, erabaki honi jarraiki: Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakia, 1999ko ekainaren 28koa, Batzordeari eslelitutako betearazpen-eskumenak erabiltzeko prozedurak finkatzen dituen ⁽²⁾.
- (32) Komenigarria da, batez ere, Batzordeari 2002/59/EE zuzentaru aldatzeko eskumenak ematea, hari eragiten dien nazioarteko hitzarmenetan, protokoloetan, kodeetan eta ebazpenetan etorkizunean aldaketak aplikatze aldera. Adierazitako neurri horiek guztiak izaera orokorra dute eta ez dituzte aldatzen zuzentaru honen elementu funtsezkoak, eta aukera ematen dute hura osatzeko beste elementu ez funtsezko batzuekin; beraz, neurri horiek hartzeko, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan ezartzen den kontrol-dun arautze-prozedura erabili behar da.
- (33) Itsas Segurtasuneko Europako Agentzia ⁽³⁾ sortzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko ekainaren 27ko 1406/2002/EE Erregelamendua betetzeko, Agentziak 2002/59/EE zuzentaru aplikatzeko beharrezkoa den laguntza eskaintzen die Batzordeari eta estatu kideei.
- (34) Erakundeen arteko "Legegintza hobetu" ⁽⁴⁾ Akordioaren 34. paragrafoan arautzen denari jarraiki, estatu kideak animatu nahi dira beren taulak egin eta argitara ditzaten, zuzentaru hau eta transposizio-neurriak bat datozela erakusteko ahal den neurrian, hori onuragarria izango baita bai haientzat, bai Europar Batasunarentzat.
- (35) Horrenbestez, 2002/59/EE zuzentaru aldatu behar da.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

2002/59/EE Zuzentaruaren honako aldaketa hauek egin dira:

- 1) 2. artikuluko 2. paragrafoa honela aldatzen da:

² L 184 EO, 1999/07/17koa, 23. or.

³ L 208 EO, 2002/08/05koa, 1. or.

⁴ L 321 EO, 2003/12/31koa, 1. or.

¹ L 324 EO, 2002/11/29koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) sarrera-esaldia kendu, eta, horren ordean, testu hau jarriko da:

«Kontrakoa adierazten duen xedapenik egon ezean, Zuzentzarau hau ez da hurrengoetan aplikatuko»;

b) kendu c) idatz-zatia, eta, horren ordean, testu hau jarriko da:

«c) 1.000 tonaz azpiko tonaje gordina duten itsasontzietako tangei eta itsasontzietako zuzkidura eta ekipamenduak, itsasontzi guztietan erabiltzeko.».

2) 3. artikulua honela aldatuko da:

a) a) idatz-zatia honela aldatzen da:

i) sarrera-esaldia kendu, eta, horren ordean, testu hau jarriko da:

«"Nazioarteko tresna egokiak": tresna hauek, eguneratuta,».

ii) marra hauek gaineratzen dira:

«— "NIEren A.917(22) Ebazpena, Nazioarteko Itsas Erakundearen 917(22) Ebazpena, "Itsasontzian automatikoki identifikatzeko sistema (AIS) erabiltzeari buruzko Zuzentzarauak" izenburua duena, itsasontzi barrukoa, NIEren A.956(23) Ebazpenarekin zuzentzen dena,

— NIEren A.949(23) Ebazpena, Nazioarteko Itsas Erakundearen 949(23) Ebazpena, "laguntza behar duten itsasontziak babesteko lekuei buruzko Zuzentzarauak" izenburua duena,

— NIEren A.950(23) Ebazpena, Nazioarteko Itsas Erakundearen 950(23) Ebazpena, "Itsasoko laguntza Zerbitzua (ILZ)" izenburua duena,

— NIEren Zuzentzarauak, itsasoko istripua gertatuz gero eskifaiari eman beharreko bidezko tratuari buruzkoak": 2006ko apirilaren 27ko NIEren Batzorde Juridikoko LEG. 3(91) Ebazpenaren atxikitako Zuzentzarauak, LANEko administrazio-kontseiluak onartutakoak, 2006ko ekainaren 12tik 16ra bitarteko 296^a saioan.»;

b) k) idatz-zatia kendu, eta, horren ordean, testu hau jarriko da:

«k) "agintari eskudunak": Estatu kideek zuzentzarau honetatik eratortzen diren funtzioak betetzeko izendatutako agintaritzak eta erakundeak»;

c) honako idatz-zatiak eranstean dira:

«s) "SafeSeaNet", itsasoko informazioa trukatzeko erkidegoko sistema, Batzordeak estatu kideen lankidetzarekin eratutakoa, Erkidegoko araudia aplikatzea bermatzeko;

t) "zerbitzu erregularra", bi portu edo gehiagoren artean egindako ibilaldi kopuru jakin bat, ordutegi publiko batzuen arabera zein serie sistematiko hautemangarri gisa izendatzeko adina erregularitasun edo maiztasun duena;

u) "arrantzontzia", uretako baliabide bizien merkataritza-ustiapena egiteko hornitutako edozein itsasontzi;

v) "laguntza behar duen itsasontzia", bere naufragioa eragin dezakeen edo ingurumenari begira edo nabigatzeko arriskutsua izan daitekeen egoera batean dagoen itsasontzia; hori pertsonen erreskateari buruzko SAR hitzarmenean xedatutakoaren kalterik gabe ulertuko da;

w) "LRIT" itsasontzien irispide luzeko identifikazio- eta jarraipen- sistema, SOLAS hitzarmeneko V/19-1 araua betetz.».

3) Artikulu hauek sartuko dira:

«6 bis artikulua

Identifikazio-sistema automatikoa (AIS) erabiltzea arrantza-ontzietan

15 metro luze baino gehiago den arrantza-ontzi orok, estatu kide bateko bandera daramana eta Erkidegoan matrikulatuta dagoena, edo estatu kide baten barneko uretan edo haren itsas lurretan arrantzatzen duena, edo harrapatutakoa estatu kide bateko portu batean askatzen duena, NIEk ezarritako errendimenduzko arauak betetzen dituen AIS identifikazio-sistema automatiko bat (A motako) eraman beharko du II. eranskinean, I. zatian, 3. puntuan ezarritako egutegiaren arabera.

AIS sistemaz hornitutako arrantzontziek hura funtzionamenduan mantendu behar dute uneoro. Salbuespeneko egoeretan, kapitainak itsasontziaren segurtasunerako beharrezkotzat ikusten badu, AIS sistema deskonektatu egin daiteke.

6. artikulua ter

Itsasontzien irispide luzeko identifikazio- eta jarraipen-sistema (LRIT) erabiltzea

1. SOLAS hitzarmeneko V/19-1 Arauak eta NIEk ezarritako errendimenduari buruzko arauak eta operatzeko baldintzak bete behar dituzten itsasontziek, aipatu Arauaren arabera, LRIT ekipamendua eraman behar dute estatu kide bateko portu batera iristen direnean.

Estatu kideak eta Batzordea lankidetzan arituko dira estatu kideetako AIS sistemako base finkoko estazioen bidez instalatutako zonaldeetan nabigatzen duten itsasontzien barnean LRIT informazioa transmititzeko ekipamenduak instalatzeko

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

baldintzak ezartze aldera, eta neurri egokiak aurkeztu dira NIEn.

2. Batzordea eta estatu kideak lankidetzan arituko dira LRIT Datuen Europako Zentro bat ezartzeko asmoz, irismen luzeko identifikazioari eta jarraipenari buruzko informazioa prozesatzeaz arduratuko dena.».

4) 12. artikulua ordez honako testu hau jarriko da:

«12. artikulua.

Merkantzia arriskutsuak garraiatzeko informazio-betekizunak

1. Estatu kide bateko portu batean ezingo da merkantzia arriskutsu edo kutsagarririk sartu itsasontzi batean garraiatu edo kargatzeko xedez, edozein delarik ere itsasontziaren tamaina, non eta, merkantziak itsasontziratzea onartu aurretik, kapitainari edo operadoreari informazio hau daraman deklarazio bat aurkezten ez bazaio:

a) I eranskineko 2. puntuan zerrendatutako informazioa;

b) Marpol Hitzarmeneko I. eranskinean aipatutako substantziei dagokionez, segurtasun-datuei buruzko fitxa aurkeztu beharko da produktuen ezaugarri fisiko eta kimikoekin, horien artean, hala dagokionean, likatasuna (cSt eran 50 °C-etara) eta dentsitatea (15 °C-etara); halaber, NIEren MSC. 150 (77) Ebazpenari jarraiki, segurtasun-datuei buruzko fitxan agertu beharreko gainerako datuak agertu beharko dira.

c) Bidaltzailearen larrialdietarako telefono zenbakia edo produktuen ezaugarri fisiko eta kimikoen ezaugarriei eta larrialdietan hartu beharreko neurriei buruzko informazioa duen edozein pertsona edo erakunderena.

2. Erkidegokoa ez den portu batetik datozen eta estatu kide bateko portuan barneratzen diren itsasontziek, merkantzia arriskutsuak edo kutsagarriak garraiatzen dituztenean, bidaltzailearen deklarazioa izan beharko dute, artikulua honetako a), b) eta c) idatz-zatietako 1 paragrafoaren arabera eskatzen den informazioa duena.

3. Bidaltzailearen eskumena eta erantzukizuna da deklarazio hori kapitainari edo operadoreari helaraztea eta garraiorako aurkeztutako karga eta 1. lerrokadaren arabera deklaraturakoa bat datozela bermatzea».

5) 14. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatiaren ordez, honako testu hau jarriko da:

«c) estatu kideek, aurrez hala eskatu ondoren, SafeSeaNet sistema erabiliz eta itsas segurtasuneko edo itsasoko ingurumena babesteko beharrezkoa bada, aukera izan behar dute beste estatu kide batean eskumena duten

tokiko edo nazioko agintaritzei itsasontziari eta bertan zamatzen den karga arriskutsu edo kutsagarriari buruzko informazioa helarazteko, inolako atzerapenik gabe».

